

IX. LEGEGINTZALDIA
2015-2019 LEGEALDIA
UXUE BARKOS BERRUEZOren
INBESTIDURA-HITZALDIA
(GEROA BAI)

BERDINTASUNA

Berdintasun arloan, gure akordioak esaten duen moduan, aldarrikatu nahi dut gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna dela berdinen artean bizikidetzako gizartea eraikitzeko eta diskriminazioa eta indarkeria sexista errotik ateratzeko aukera bakarra.

Eta aldaketaren Gobernuan, gure helburua da politika publikoak aldatzea, gizonen eta emakumeen arteko eskubideen eta aukeren berdintasuna argi eta garbi defendatuaz, emakume guztientzat baldintza sozial eta ekonomiko duinak bermatze aldera.

Modu horretan, iragarri nahi dugu INAI berreskuratuko dugula, Berdintasunerako Nafarroako Institutu gisa; halaber, Genero Berdintasunerako Foru Legea egingo dugu eta Nafarroako Gobernurako Barneko Berdintasun Plana, negoziazio kolektiboarekin lotuta.

Baina premien larrialdirik handienez, Plan Estrategiko bat berehala garatuko dugu, emakumeen aurkako indarkeriaren aurka jokatzeko beharrezko baliabide eta guzti.